




Fresaketa teknologia



SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

Albistek e-postaz jasotzeko,
HARPIDETU!

- 1- Sartu Plaentxia.com helbidean
- 2- Izena eta e-posta adierazi
- 3- "Harpidetu!" klikatu

Plaentxia.com,
egunero zurekin!

plaentxia.com



- Espainiako Hauteskunde Orokorretako emaitzak eta balorazioak
- Zer berri: Udalbatzak Arrasateko atentatuaren inguruko mozioa onartu du

soraluzeko
hamabostekaria **174.** alea
2008ko martxoaren 18an

pil-pilean



Gure kutsadurak itota



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak


Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak



GOL

GOL industriak S.A:
Sagar Erreka, 19 45PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE

A graphic design advertisement with a yellow background. The word "comunicación" is written in a large, white, cursive font, curving across the top. Below it, the word "eventos" is written in a similar font. In the center, there is a circular arrangement of various design-related terms in Spanish: "identidad corporativa", "editorial", "ilustración", "caligrafía", "stand", "cartelería", "tipografía", "fotografía", and "exhibiciones". On the right side, there is a large, stylized black and white logo that resembles a letter 'S'. At the bottom right, there is a list of services in Spanish: "kaligrafia", "ilustrazioa", "editoriala", "irudi korporatiboa", "posterrak eta kartelak", "mahaiak eta erakusketak", and "web". The website address "silviovaz.com" is written at the bottom right.

**MIKEL SANTIAGO****UBANE MADERA**

HAUSNARREAN

Aupa Ubane, zer moduz? Hauteskunde osteko ajeak jota idazten dizut, emaitzak ezagutu ostean sortutako zurrunbilotik lehenbailehen atera nahian. Egia esan, arrazoi ezberdinak direla-eta, ez dira ohiko hauteskundeak izan eta denon gusturako irakurketak aurki daitezke emaitzei begira. Azken finean bakoitzak uste dugunaren araberrako interpretazioak egiten ditugu.

Ez da nire gaurko asmoa politikari buruz zurekin hitz egitea. Nik hausnarketari buruzko “hausnarketatxo” bat (zilegi bekit errepikapena) konpartitu nahiko nuke zurekin. Oporrak izateko irrikitan naiz dagoeneko eta Aste Santuari begira jarrita nago aspalditik. Fededunentzat gogoetarako eta ospakizunerako aldia da, egunerokotik aldegin eta norberaren barruari begira jarrita. Baina ez dira horretarako gehienontzat.

Ez dakit ez ote garen, presaren presaz, inolako hausnarketarik gabeko gizarte bat erakitzen ari. Erlijiosotasuna galtzen ari da zeharo gure gizartean, hein handi batean elizak gai askotan hartutako jarreragatik. Baina ez du traszendentziarekiko gizakiaren irrika hori beste ezerk ordezkatu. Ez naturarekiko edo amalurrarekiko begirune handiago batek, ez poesiarekiko, justiziarekiko edo elkartasunarekiko zaletasun handiago batek...

Kanpora joandakoan, edo telebistan ikusita, maiz mirestu egiten ditugu zenbait herrik dauzkaten sinesmenak. Portzieto, zuk zer egingo duzu Aste Santuan? 🌀

“

Hausnarketarik gabeko gizarteak eraikitzen ari gara

Mikel Santiago

Inguruan asperdura ikusten dut

Ubane Madera

”

Aupa Mikel, Ba hementxe nabil, oporrak heltzeko deseatzten. Zeu moduan, neu ere hauteskunde aje galantarekin. Batetik lanean jardun nuelako domeka horretan; eta bestetik, aurtengo hauteskundeak benetan gogorrek izan direlako Arrasate inguruan gabiltzanondako.

Hausnarketa bako gizarteak erakitzen ete gabiltzan, beldur zara. Bat nator zurekin. Indibidualtasuna eta ahalik eta ongizaterik onena zela lortu bilakatu da gure “hausnarketa”. Eta neu ere talde horretan sartzen naiz, ez pentsa.

Zergatik egiten dugun hori? Inguruan asperdura da nik ikusten dudana “sentsaziorik” hedatuena. Asperdura politikarekiko, asperdura komunikabideekiko, asperdura korruptzioarekiko, asperdura espekulazioarekiko ...

Eta ongi eta aberats bizi nahi izatea. Hori ere ikusten dut; bestelako kezka bariak, etxe eder eta auto handiarekin, neguan eta udan oporrekin... Eta horretarako egundoko kreditoak edo lanean ordu mordoa sartu behar baditugu, etxako inporta!

Gogorrena da ez dakidala zer dela-eta iritsi garen muturreraino. Izan ere, gugandik iparralderago bizi diren herrialde askotako aberastasun maila gurea baino altuagoa da (Frantzia, Alemania, Eskozia ...), baina halako lekuetan, adibidez, gureak baino garaipe sozial askoz altuagoak dituzte, eta gauza dira behar denean ganoraz protesta egiteko, guztiek batera. Aste Santuan eman beharko pare bat buelta. 🌀

Goguan hartzeko

Gogoetak sendimenduen pizgarri, sendimenduak helburuen sustagarri.

Esaera zaharra



GUTUNAK

Anima zaitetze, zuen zain gaude!!!

Zuetako batzuk jakingo dozue dagoeneko, Eibar Hierros Anetxe Rugby Klubak nesken errugbi talde bat antolatu duela.

Errugbi talde bakoitza 15 jokalariz osatuta dago, eta honi, orainarte errugbia mutilen kirol bat izan dala gehitzen badiogu, eragozpen ugari dira taldea sortzerakoan.

Adin guztietako lagun talde bat elkartu eta pasaden irailean hasi ziran entrenamenduak baina momentuz ez dugu ligako partidurik jolasteko aukerarik eduki, zoritxarrez, taldea osatzeko jendea falta zaigulako.

Arrazoi honegatik, betidanik errugbia zer den jakitea nahi izan duzuenoi baina orain arte aukerarik izan ez duzuen guztioi deitzen zaituztegu.

Astean birritan entrenatzen dugu; asteartetan 19:00etatik aurrera eta ostegunetan 18:00etatik aurrera.

Kirola egitea eta ambiente jatorra gustoko baduzu, animatu eta igo astearte edo ostegun batean Unbera edo bestela deitu 618046737 edo 600518523 zenbakira.

Ongietorriak izango zarete eta probatzearekin ez da ezer galtzen!!

Eta, lagunak ekartzeaz ez ahaztu!!

MIREN ARRIOLA

 **PIL-PILEAN**

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinu eta maketazioa:** Silvio Vaz **Komikixia:** Silvio Vaz
Inprimategia: Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale
I.Z.K.a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkarioko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



bittartetik



Eguzkiñe Aldazabal

Enpresak

40. hamarkadan jaioa banintz, oinarrizko ikasketen ostean, urte batzuk besteren etxean zerbitzatzen pasatakoa nintzateke. Uniforme beltzaren azpian, señor eta señoraren zerbitzari. Lehenengo dantzaldian ezagututako mutilarekin ezkondu eta harekin nituzke hiru seme-alaba. Beste 35 urte familiaren zerbitzari. Eta jubilatzeke garaia iritsita ezingo nuke jubilazio soldatarik dastatu.

80. hamarkadan jaioa naizelako, argi daukat ez naizela haren eta bestearen berdina. Hala ere, argi daukat, aukera bat, besteari eta hari emango zeniokena-aren berdina, zor didazula. Nahiz gizonezkoa nahiz emakumezkoa izan, inolako -ismorik gabe.

Argi daukat 40. hamarkadako emakume askok ez dutela halako aukerarik eduki. Nik argi daukat etxeakoandreak baino, enpresa-emakumeak direla. Gestio lanetan, idazkari lanetan, marketing-eant, psikologo, eta batez ere injenio haundiz, injeniarikak direla. Ia noizbait merezia duten jubilazioa jasotzerik daukaten. Ia egungo neskok senti dezakegun askatasun haizetik zerbait iristen zaien. Nere hego-haize pixka bat haiei guztiei...

Soraluzeko Odol-emaileen Elkarteko arduraduna

Zegaittik da garrantzitsua odola emotia?

Gaur egunian odol artifizialik ezin leikenez egin, edo bateron batek emoten dau, edo bestela, bihar dabenak ez dauka.

Kontzientziatuta dago jendia?

Askok ez dabe jakiten, edo ez dira ausartzen lehenengo aldiz juatera. Pentzatzan dabe ospitaleetan odola badaguala. Pariantokatu arte.

Ze baldintza bete bihar dira odol-emaile izateko?

Gaixotasunik ez eukitzia, eta 18 urte eta 50 kilotik gora eukitzia. Mutilak 3 hilabetetik behin eta neskek lau hilabetetik behin emon leikie. Medikua etortzen danez beti, berak egiten ditte galderak. Nahiz eta odola emon, analizatu egiten da dan-dana, eta zeoze baldin badaukazu, abisatu egiten dotsue. Egon izan dira kasuak.

Ze bide egiten dau odolak etara ostian?

Donostiako Odol-emaileen Elkartetik edo Odol Bankutik erizainak eta medikuak etortzen dira odola etaratzera. Gero aztertzeke eruatzen dabe Odol Bankura eta odola osagai desberdinetan banatzen dabe (plasma, plaketak...). Handik ospitaleetara banatzen da.



Emale berriei Itziarrek eskuartean duen informazio txostena banatuko zale.

Odol artifizialik ez daguanek, emon biharra dago

Ze odol dago gehixen Soraluzen?

O positibo eta A positibo dare gehixen. Negatibuak be badare eta AB positibo eta negatibuak oso gutxi agertzen dira.

Proporziñuan, Plazentziarako nahikua emale dare?

Elkartiak manejatzen dittuan datuekin ondo gare. 45etik 50era, hor ibiltzen gara. Gainera, hemen gaztiak be juaten dira. Gehixen-tan beti egoten da barriren bat eta gaztiak izaten dira. Normalian juaten dana, bueltatu egiten da.

Urtaruen arabera igartzen dira gora beherak?

Udan oporrak dirala-eta jendiak laga egiten dau eta sasoi hori izaten da gehixen bihar izaten dana, istripuegaittik. Baina kanpaina berezixak be erantzun ona eukitzen dabe eta ez da falta izaten. ☺

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

MENDATA taberna

Pizak ● Sukaldetik zure etxera!! ● Kazuelitak
Bokadilloak ● ● Razioak

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

Udalbatzak Arrasateko atentatuaren aurkako mozioa onartu du

Martxoaren 12an Udalbatza berezia egin zen PSE-EEk ETAK hildako Isaias Carrascoren hilketa gaitzesteko aurkeztutako mozioa bozkatzeko. EAJ(3), EA(2), PSE-EE(2) eta PP(1)ko zinegotzien aldeko botoekin onartu egin zen. EAE-ANVko zinegotziak abstenitu egin ziren.

Gaitzespen eskaera

Mozioak hainbat eskaera batu zituen: lehenik, Udaleko Batzarkide guztiek gaitzetsi zezatela "ETAren hilketa ankerra, zantzantza izpirik gabe eta tinkotasunez"; bigarrenik, Soroluzeren

laguntza eta elkartasuna helaraztea Isaias Carrascoren familiari eta Arrasateko Elkarte Sozialistari; azkenik, erabakia publiko egitea. Baiezkoa eman zuten alderdiek elkartasuna eta babesa eskaini zieten Soroluzeko zinegotziei, Isaiasen familiari eta alderdi sozialistari.

ANV abstenitu egin zen

Boto azalpenean, EAE-ANVko zinegotzi taldeak "samina eta tristura" azaltzeaz gain, "doluminak eta elkartasuna" adierazi zizkieten Isaiasensenei eta lagunei. Gaitzespen hutsak konponbiderik ez dakarrela eta gatazka

gainditzeko sustraietara jo beharra dagoela esan zuten. Akordio politikoa lortzeko lanean jarraituko dutela gaineratu zuten, "gatazka politiko eta armatua eta bere ondorio guztiak behin betiko gainditzeko". ☺

Zuzendaritza berria Itzaropenan

Orain arteko Jubilatuen Etxeko Zuzendaritza Batzordeak bazkideen artean hamabi aukeratu zituen, borondatez inor aurkeztu ez zelako, eta horietatik zortzi aukeratu zituzten bazkideek boto bidez: Ezoz Basauri (107 boto), Juan Antonio Garitano (105), Margarita Alveniz (97), Valeriano Madrid (88), Luis Sousa (88), Manolo Etxabe (87), Cristina Sologaistua (82) eta Santiago Domínguez (77). Zortzi hauek beren artean erabakiko dute lehen-dakaria eta gainontzeko karguak nola banatu.

Apirilean irekiko dute Rabal kalea

Udalak adierazi duenez, apirilko lehen astean Rabal kalea ibilgailuentzat zabaltzea aurrakusten da.

Itsasmendikoiren ikastaroak

Txakurrak hezteko begirale ikastaroa eta nekazalturismoari buruzkoa antolatu ditu Itsasmendiko Elkarteak. Izena emateko edo informazio gehiagorako: **943 69 21 66** edo rmartinez@itsasmendikoi.net.

Atentatuaren biharamunean 150 herritarretik gora batu ziren Plaza Barrixan, gertatutakoa salatzen.



GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE
Hortz Klinika

✓ DOANEGO BERRIKUSKETAK
✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIARA
✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

TXOKO KAFETEGIA

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Euskarazko ontzia

Atari honetan euskarazko errotulua jartzea erabaki dute. Publizitatea uztera doanak laster ulertuko du non laga behar duen publizitatea eta jakingo du atari horretan euskaraz egin nahi duten soraluzetarrak bizi direla.



Euskadunak etxerik gabe

Irgarki hau jarri duenak jakin behar luke euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzen diharduela. Soraluze moduko herri euskaldun batean iragarkiak gaztelera hutsean jartzeak zer esan nahi du?



Zer egin?

Eskelak euskaraz

“*Senide edo lagun baten eskela jarri behar duzunean, jarri euskaraz*”

Gure artean ohitura da norbait hiltzen denean eskela edo oroitza jartzea. Gaur egun ia komunikabide eta ehorzketa etxe gehienek eskaintzen dute eskelak euskaraz jartzeko aukera. Momentu horietan ere garrantzitsua da hizkuntza aukeratzea, guk aukerarik egin ezean beste batek egingo duelako. Beraz, eskatu eskela euskaraz jartzeko. Urte askotarako!

BAI EUSKARARI!



Txuri Urdinak Lagunartea

“Soraluzeko Txuri-Urdinak” Elkarteak

5. Urteurrena

Egitaraua

Martxoaren 1a, larunbata

- (12:00ak) Iba eta Herriak Iba: “Puggin” Pizti Barnean
- (12:30ak) Errotuluen jantzi mundiala
- (13:00ak) Euskarazko soraluzetarrak
- (18:00ak) Bazarra, Txurruka postean

Martxoaren 2a, igandea

- (12:00ak) Euskarazko errotulak eta 2008ko
- (12:30ak) - Sotik, txurruka eta ardo (Pizti Zaharretan)
- Barnean eta herriak
- (12:30ak) Osoan barnean barnean (12:30ak)

Martxoaren 6a, osteguna

- (18:30ak) Bazar Osoan (Txurruka)

5 urteurrenako programa euskaraz kaleratu du.

2008ko konpromisoa

Lagunarteko akta guztiak euskaratuko ditu





PSE-EEK lortu ditu boto gehien Soraluzen

Martxoaren 9an egindako Espainiako Hauteskunde Orokorretako emaitzak duela lau urtekoen oso bestelakoak izan dira. PSE-EE nagusitu da 717 botorekin, EAJk baino 180 boto gehiago lortuta. Gorakada egin duen alderdi bakarra izan da PSE-EE (+%15,31); gainontzekoek beherakada izan dute, %1etik %8ra bitartekoa.

Abstentzioak ia %16ko igoera izan du 2004ko hauteskundeetan aldean. Arrazoietako bat ezker abertzaleak egindako abstentziorako deia izan daiteke. (2004ko hauteskundeetan baliogabe botoetan islatu zen). ●

Urtea	2008		2004	
Errolda	3.339		3.498	
Zuriak	24 (%1,27)		25 (%1,18)	
Baliogabeak	19 (%1,01)		409 (%16,16)	
Abstentzia	1.455 (%43,58)		967 (%27,64)	
ALDERDIAK	BOTOAK	Ehunekoak	BOTOAK	Ehunekoak
PSE-EE	717	%38,45 (+15,31)	491	23,14
EAJ	537	28,79 (-7,59)	772	36,38
PP	282	15,12 (-2,60)	376	17,72
EA	154	8,26 (-1,64)	210	9,90
Aralar	85	4,56	-	
EB-B	46	2,47 (-2,48)	105	4,95
Aralar-Zutik	-		132	6,22
Besteak	20	1,07	11	0,52

2008ko emaitzak



BALORAZIOAK



Historiako emaitzik onenak izan dira oraingoak Sorraluzeko PSE-EErentzat (717 boto). Inoiz ez ginen alderdi botatuena izan domeka hartara arte. Bere babes eta konfidantza eman diguten herritar guztiei gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu.

Martxoaren 9an argi geratu zen ETaren hilketen aurrean herritarrek demokrazia eta askatasun gehiagorekin erantzun zutela. Hori da bidea! Euskal gizartea, eta bereziki gipuzkoarra, anitza dela ere argi ikusi zen; inork ezin duela euskal gizartearen, euskal herriaren, ordezkaritza bakarrik beretzat hartu.

Gure ustez, euskal herritarren gehiengoak benetako arazoei irtenbidea eskaintzen dien alderdia babestu du eta bizkarra eman die gatazka artifizialak proposatzeaz nekatzen ez diren alderdiei, bata bestearen aurka jartzeaz nekatzen ez direnei.

Hauteskunde eguna normaltasunez joan izana nabarmendu nahi genuke, bai Sorraluzen baita ia Gipuzkoa osoan ere.

Etorkizunerako positiboa litzateke alderdi abertzaleek, eta bereziki tripartitoak, beren jarrera politikoak moldatuko balituzte gizarteak martxoaren 9an emandako mezura. ●



Nabarmena da Sorraluzen Eusko Alkartasunaren emaitzak ez direla onak izan. Saiatu gara plentxiarrei mezua ondo azaltzen eta EAri botoa ematera animatzen, baina agerian da ez dugula lortu. Hauteskundeetan izandako bipolarizazioa dela eta PP eta PSOE aukera bakar gisa azaldu dizkigute. Eta Arrasaten izandako atentatuak ere eragin handia izan du hauteskunde emaitzetan. Bestalde, zenbaitek abstentzioaren aukera ere erabili du eta horrek hausnarketa serio bat egitera garamatza.

Aukera hau baliatu nahi dugu, Isaias Carrasco langile eta PSE-PSOeko militantearen kontrako atentatua erabat gaitzesten dugula argi eta garbi adierazteko. Horrelako ekintzekin Euskal Herriak ez dauka inolako etorkizunik eta guztioi kalte egiten badigute ere, batez ere abertzaleon kalterako dira.

Herriaren alde eta herrirako lanean jarraituko dugu. Bakean bizi nahi dugu guztion ongizatea bermatuko duen Euskal Herri aske batean. Eskerririk asko Eusko Alkartasunari botoa eman zioten herritar guztiei. ●



Emaitzek argi utzi dute bi proiektu politiko bakarrik egon daitezkeela: konstituzio espainola inposatzen duen proiektua edo euskal herriaren eskubideak defendatzen dituen. Hirugarren biderik ez dago, proiektu erreionalista agortuta dago.

Igandekoak, hauteskunde antidemokratikoak izan ziren, eta lotsagarria izan da beste alderdien aldetik normaltasunarekin jokatu izana eta abstentzioaren aukera mezpresatu izana. Beraiek dira izan duten emaitzen arduradun bakarrak.

Igandean Euskal Herriak planto egin zion ilegalizazio politikari, torturari, salbuespen egoerari eta independentismoaren kriminalizazioari. Abstentzio eta boikotaren bidez, herriak, eskubideen aitortzari eta lurraldetasunari baietz esan zion.

PSOEn igoera nabarmena izan da beste alderdi bartzuen kaltetan; ezker abertzalearen oinarriak tinko dira. Argi dago, ez dagoela aldaketa politikorik ezker abertzalerik gabe. Euskal Herriak konponbidearen aldeko hautua egin du, marko demokratiko baten beharra azpimarratuz. ●



Ehundaka arrain azaldu dira hilda ibaian

Zer hintzen eta non hago. Loinak, barboak, aingirak, eskailuak, amorrainak, eta sasoi batean angulak ere izaten ziren Deba ibaian. Industriaren kutsaduraren eraginez, ibaiak kalte handiak jasaten ditu eta biologikoki oso hondatuta dago.

Ehundaka arrain hilda egunotan

Martxoaren 12an ehundaka arrain hilda agertu ziren Deba ibaian, Osintxutik hasi eta Maltzagara bitartean. Bazter guztietan ageri ziren arrainak. Loinak (*Chondrostoma arrigonis*) ziren guztiak, tamaina desberdinetakoak. Foru Aldundiko Ingurugiro Saileko arduradunek laginak hartuzituzten eta ikerketa abiatuko dute. Arduradunetako batek azaldu zigunez, aurreko egunetan izandako euri-teak aprobetxatuz egin zuen isurketa toxikoa enpresaren batek eta urak lasaitutakoan azaleratu egin ziren hildako loinak. Gaineratu zuenez, "aingirak izaten dira gogorrenak eta ez da aingirarik hilda azaldu". Horrek isurketa oso larria izan ez zela adierazten du. Hala ere, larria bada, hainbeste arrain hil dituenen.

Erruduna aurkitzea, oso zaila

Oso zaila da enpresa erruduna zein izan den zehaztea, gehienetan hondakin-urak kolektore bakarrera isurtzen

dituztelako enpresa batek baino gehiagok. Martxoaren 12ko gertaera Bergarako San Lorenzo industrialde-tik etorritako isurketa batek eragindakoa den susmoa dute Aldundikoek, baina ez da ezer frogatu oraindik. Laginetan ze sustantzia agertzen diren ezagutu ostean, industrialde horretako zein enpresak erabiltzen duten jakin behar da. Sustantzia horren erabiltzaileak enpresa bat baino gehiago direnean (gehienetan), ezin izaten da zehaztu zein izan den isurketa egin duena.

Araztegiak martxan 2011rako

Eusko Jaurlaritzaren aurrikuspenen arabera, 2011rako Deba bailarako bost araztegiak ehuneko ehunean funtzionatuko dute. Orduan, ibaira ez da zuzenean isurketa fekalik eta industrialik egingo eta ibaiak berzko egoerara itzultzeko baldintzak izango ditu.

- Arrasateko Epelekoa eraikuntza fasean dago eta 2011an martxan ipintzeko asmoa du Eusko Jaurlaritzak.

- Mekolaldeko araztegia hilabete biren buruan martxan izango da, "dena ondo bada". Horixe adierazi digu bertako arduradunetako batek. Ur garbiarekin frogak egiten dihardute eta ondoren hasiko dira ur zikinekin.

- Elgoibarko Apraiz araztegiak Eibar eta Elgoibarko ur zikinak batzen ditu gaur egun, baina egiteko dauden Mallabia, Ermua, Mendaro eta Sorluzeko kolektoreek bideratutakoa arazteko 100%eko funtzionamendua

izango du 2009 urte amaierarako. Sorluzeko kolektorea egiteko lanak hasi dira dagoeneko Maltzagan eta urtebete iraungo dute.


- Mutrikun eta Deban araztegiak martxan daude. ☺

Oso zaila da enpresa erruduna zein den zehaztea.



Euriteak aprobetxatuz egin zuen isurketa toxikoa enpresaren batek.

2001rako Deba bailarako araztegi guztiak martxan izango dira.



Roke Akizu
Ingurumen zinegotzia

Enpresarik gehixenak ez dabe oindio txostenik aurkeztu

Badauka Udalak eskumenik horrelako kasetan?

Ez. Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzaren esku dago hori eta berak arduratzen dira. Udalak enpresari aktibitate lizentzia emoten dotse, ingurumenakiko arau danak betetzen dittuenian.

Zer isuri baimentzen du legeak?

Berez ezin da ezer isuri. Enpresa bakoitzak bere uren ziklua ondo adierazitta eduki bihar dau, baina atzerapen haundixa dago. Nik dakitenez, gehixenak ez dabe oindio aurkeztu txostenik osotasunian.

Ibaiertzeko zaborrak kentzeko asmorik badago?

Berez Jaurlaritzari dagokixo. Guk ez daukagu baliabiderik horretarako. Bolondres talde bat antolatzea izango litzake aukera bat. Baina kontzientzia ekologikuan oso atzeratuta gare; ez dago hezkuntzarikan.

Presak kentzeko proiektua zertan dago?

Eginda dago. Udaleko Ingurumen Sailan asmua herritarrekin eztabaida foro bat osatzea da. Teknikuak prest dare bertara etortzeko, azalpenak eman eta ekarpenak jasotzeko. Baldintza bat ipini dabe, uholde arriskua zero izatia.

Bergarako poligono parean ateratako argazkia. Elgeta, Ubera eta Bergarako ur zikinak ibaira isurtzen dira.

Mekolaldeko araztegia bi hilabeten buruan izango da martxan.



AZKEN URTEOTAKO ISURKETAK

2004: 70 litro gasolioko isurketa Aretxabaletan.

2005: ehundako arrain hilda ibaian (udan tenkak eta eskailuak ibili ziren)

2006: Eibarren zianuro isurketa oso larria (milaka arrain hilda, tartean aingirak) eta porlan isurketa Deban.

2008: ehundaka loina hilda Soraluze inguruan.

Hildako arraiekin batera, era guztietako zikinkeriak ikusi daitezke ibai bazterretan.





Ugara ra xo Alpistea

Errotara, Ingurugiro Zentrora eta tren museora bisita

Iepa lagunak!

Lehen mailako ikasleak gara. Oso pozik gaude. Alde batetik Aste Santuko oporrak heltzear daudelako. Zuek ere pozik ibiliko zarete, ezta? Bestetik, irteera polit-polita egin dugulako.

Lehen hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak martxoaren 7an, Azpeitira joan ginen.

1. Goizean, errota bat martxan jarri zuten guretzako eta arto-irina nola ehotzen den ikusi genuen.



Ondoren, Ingurugiro Zentroan bi tailer egin genituen:


- Zarataren tailerra
- Birziklaketa tailerra.

2. Arratsaldean, tren museoa bisitatu genuen eta bertan, tranbia zahar batetan bi-daiatxo bat egin genuen.

Oso gustora ibili ginen, eta jolasteko denbora ere izan genuen.

Oporretarako planak egin dituzue? Oraindik ez? Ba, anima zaitzete eta joan zaitzete Azpeitira, merezi du eta !! 🐸





Telebista ikustia gustoko dozu?

Zenbat denbora emoten dozu telebista aurrian?



Bai, baina aspaldi ibili nintzan eta ez naiz gogoratzen nora juan ginan. Barraketako trenian be ibili izan naiz batzuetan. Donostiara juatia gustatuko jatan.



Lehengan Azpeittira juan ginan eta neretako lehenengo aldixa izan zan trenian ibili nintzana. Berdia zan, politta, baina denpora gutxi ibili ginan. Zarautzera juango nintzake.

Eibartik Zarautzera eta Debara juanda nago, hondartzara juateko. Azpeittiko trenian oso ondo ibili nintzan. Tren berdiak, gorrixak, horixak... zeren. Donostiara juango nintzake, han lagunak dauzkatelako.



Bai, Donostiara juanda nago trenian, hondartzara, aitakin eta amakin, eta lehengo egunian Azpeittin be gustora ibili nintzan. Bilbora juatia gustatuko jatan, hango parkian jolastera.



MENDIEN HIZKI ZOPA

Bilatu ondorengo mendiak hizki zopan.

- * UDALATX
- * MURUMENDI
- * KURTZETXIKI
- * BESAIDE
- * TELLAMENDI
- * ANBOTO
- * KURTZEBERRI
- * INTXORTA
- * GORBEA
- * AITZORROTZ
- * ALOÑA
- * AIZKORRI
- * ORIXOL

U	D	A	L	A	U	Z	O	K	I	D	E
A	D	I	E	Z	P	A	O	U	Z	I	I
K	I	A	I	Z	K	O	R	R	I	R	D
A	R	L	L	A	G	O	I	T	U	R	N
S	I	O	Z	A	R	A	X	Z	T	E	E
K	E	Ñ	I	A	T	K	O	E	T	I	M
A	K	A	R	T	E	X	L	T	A	S	A
G	A	O	T	O	B	N	A	X	K	E	L
M	U	R	U	M	E	N	D	I	I	Z	L
O	T	G	O	R	B	E	A	K	A	N	E
J	O	J	A	B	E	S	A	I	D	E	T

ZER TRISTEN DOTSAZU?

Odola emotera juateko ohitturarik badaukazu?

Martxoaren 28an odota emateko urteko lehen aukera izango dute soraluzetarrek. Normalean, 45-50 emaila izaten dira egun bakoitzeko.

ENARA AGIRRE
Administraria




Bai, odol-emailia naiz. Bi aldiz emon ahal izan dot; beste batzuetan jua izan naiz eta ezin izan dot emon. Danok jua bihako ginake, bihar danerako. Gaur zuregaittik eta bihar neregaittik.

ALBERTO LOSADA
Ixurketagilea




Ez, ez naiz juaten. Udan gaixorik egon nintzan eta bihar izan neban. Orduan, behin edo behin emotera juango naiz, baina aspertuta nago oin hainbeste orratzekin.

PAULINA RODRIGUEZ
Etxekoandrea



Ez, ezin dotelako. Lurpus bat daukagu eta ezin dogu, baina ahalko banu, emongo neuke. Gure etxeak danak emoten dabe eta, entzun dotenez, gazte askok be bai.

EKI ELDUAIEN
Galdaragintzako langilea



Ez, ez naiz juaten. Tokatzen bajata, pentzatu egingo dot, baina momentuz, ez dosta asko ardua. Nere ama juaten da, badauka ohitturia, baina nik ez.

KOMIKIXA



Diseinua eta Formena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434
Jon Azkorbebeitia Txurruka
KZ 20000752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

Kili-Kolok antzezlan berria estreinatuko du

Gaur, martitzena, estreinatuko du "Patetika kabareta" Obra Kili-Kolo Antzerki taldeak. Erotasunaren gaia jorratuko dute kabaret estiloko autoekoizpen honetan. Emaldia Eibarko Gaztetxean izango da, gaueko 22:30etan. Taldekide gehienak soraluzetarrak izanik, datozen asteetan herrian antzetzuko dute lan berria.

Udaberriko kontzertua



Musika Eskolako ikasleek Udaberriko kontzertua eskaini zuten pasaden astean Elizan. Taldeka zein bakarka jardun zuten eta musika tailerrekoak, abesbatza eta banda entzuteko aukera ere izan zuten bertaratutakoek.

Papuako argazkiekin erakusketa jarri du Fernando Oregik

Fernando Oregi argazkilari soraluzetarrak Papuan ateratako argazkiekin erakusketa bat osatu

du. Eibarko El Ambigú tabernan daude ikusgai argazkiak, martxoaren azkenera arte. 📷



Auzolana, musika eta bideoak Gaztetxean

Martxoko egitarauaren barruan, ekimen batzuk antolatu ditu Soraluzeko Gaztetxeak. Hilaren 23an, domekan, musika kontzertua eskainiko dute Valentziako Kostra Nostra eta Alergia taldeek, gaueko 22:00etan. Hilaren 27an, eguena, "Cuéntame

que te pasó desde el 86" zikloaren barruan, "Caravana insumisa" bideoa emango dute gaueko 21:00etan. Martxoko azken astea auzolanean lokalean konponketak egiteko baliatuko dute, hilaren 25etik 30era bitartean. 📷



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

ARMENDIA JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Laskurain Ogetako finalean

Igandean Atanon jokaturako partidua irabazi eta gero (22-12), Titinek eta Laskurainek binakako final handia jokatu dute Olaizola eta Mendizabalen aurka. Finala Gasteizko Ogetan jokatu da martxoaren 30ean. Laskurainen lagunarteak autobusa antolatuko du finalerako eta sarrerak salgai jarriko ditu hurrengo egunetan. 🍷

Herri Kiroletako herriarteko txapelketa antolatu dute

Martxoaren 8an, emakumeen herri kirol erakustaldia egin zen Plaza Barrixan.



Gipuzkoako herrien arteko txapelketa prestatzen dihardu Localia Gipuzkoa telebista kateak. Herri kirolak eta galdera kulturalak izango dira lehia horretako ardatzak.

Grabatu eta emititu

Bidasoa-Oarsoaldea, Goierri Behera, Debabarrena, Debagoiena, Donostialdea, Oria eta Urola bailaretan jokatu dira kanpo-

raketak, apirilean hasi eta ekainera bitartean zapatu goizetan. Guztiak grabatu egingo dituzte eta astebarruan emititu.

Herri bakoitzak adinez nagusiak diren hiruna emakume eta gizonezko osatutako taldea aurkeztuko du apirilaren 7a baino lehen. Izena emateko Udaletxera jo beharko da. 🍷

EMAITZAK

PILOTA

Titin III – Laskurain 22
Bengoetxea VI – Patxi Ruiz 13

Urberuaga – Castillo 13
Erroizena – Jauregi 22

Titin III – Laskurain 22
Olaizola – Mendizabal 12

Berriako txapelketa jokatzeko zehaztutako Jauregik Añorgako taldearekin, baina 3. kanporaketan lehiaz kanpo utzi ditu Markinak.

FUTBOLA

Amara Berri 2 – Sora 3 (Erreg.)
Ikasberri 1 – Sora 4 (Kad.)
Sora 1 – Ikasberri 5 (Jub.)
Sora 0 - Antzuola 2 (Erreg.)

AGENDA

FUTBOLA

Hurrengo partidua apirilaren lehen astebukaeran jokatuko dira. Erregional taldeak Rotetaren aurka eta jubenilak Amaiak Baten aurka jokatu dute. Kadeteek atseden hartuko dute.

ARRANO
tabernia
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua
etxera

JABIER ALBERDI
HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA
KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.
KALITATEA
Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea



ZORION AGURRAK



Gorka Ojea
Martxuan 22xan 15 udaberri Zorionak! Etxekuen partez.



Iraultza Ostolaza Lakuesta
Martxuan 20xan 5 urte Ilargiraino ta bueltan maite zaitugu! Zorionak polittori, guraso eta etxekoen partez



Irene Etxezarreta
Martxuan 25ian, 6 urte Zorionak printsesa! Pila-pila-pila maite zaitugu. Maria, aita eta amaren partez, muxu handi handi bat.



Maria Etxezarreta
Apirilan 4ian, 3 urte Zorionak, pottoki! Muxu handi bat Irene, aita eta amaren partez



Begoña Arenaza
Martxuan 10ian ZORIONAK AMATXO!Zure irribarre eder horrek urte askuan irauñ deñan...patxo asko! Etxekuen partez!



Maddi Plata
Martxuan 29xan 4 urte Zorionak sorgintxo! Zu zaralako gure bizi-poza, segi holaxe!Patxo mordo bat! Etxekuen partez!



Ane Ugalde
Martxuan 21ian 25 urte Zorionak Anetxo! Parranda edar batekin ospatuko dogu? Kuadrilakuen partez.




IRAGARKIAK

Lan eskaintza

Artikuloak (bitxiak, moda eta osagaiak) katalogo bidez saltzeko emakumeak behar dira. Diru sarrera ona eta ordukako lana.

Harremanetarako: **685 78 72 32**

hildakoak



PAULO EZENARRO EGURROLA
ANTONIO MORO EGUREN

LEHTAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Zeri esaten jako “txiribiskau”?**

- 1- Mozkortziari
- 2- Lurrera jaustiari
- 3- Mariatziari

► **Saria:**
Fisioterapia saio bat **Gogortuz** zentruan

► **Irabazlea: Luisja Oregi**

- **1983ko ufala...**
abuztuan izan zan. Bi egunetan inkomunikatuta egon zan herrixa, janari fesko eta edateko urik bare. Etxe eta tailar asko urez bete ziran eta kalte haundixak sortu zittuan.



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Isabel Urizar

1958KO PROZESIÑUA

Barixaku santuko prozesiñua da argazkixan agertzen dana, 1958 urtekua. Egun horretan Jesusen kajia eta “La Dolorosa” etaratzen ziran. Eguenian, Jesus gurutziakin, Ama Birjinia eta Juan etaratzen ziran. Bepizkunde egunian, ostera, Jesus eta Ama Birjinia etaratzen ziran, bata parrokixatik eta bestia Santa Anako komentutik, eta Udaletxe parian bat egin ostian, alkarrekin eruaten zittuen elizara.

Argazki honetan Guardia Zibilak azaltzen dira kajian inguruan, baita oinutsik doian emakume bat be, promesaren bat eginda. Aurrian eskumako aldian korbatia jantzita azaltzen dana Juan Jose Urizar zana da. 